

Where
social
meets
legal

2023

Jardueren Memoria



OÑATI INTERNATIONAL INSTITUTE
FOR THE SOCIOLOGY OF LAW

—
OÑATIKO LEGE-SOZIOLOGIAKO
NAZIOARTEKO ERAKUNDEA

—
INSTITUTO INTERNACIONAL
DE SOCIOLOGÍA JURÍDICA DE OÑATI



Sabine Frerichs

LSNEko zientzia-zuzendaria

Ikerbasque research professor

Irakasle gorena - Zuzenbide Fakultatea - UPV/EHU

Sabine Frerichs zientzia-zuzendaria izendatua 2022-23 eta 2023-24 ikasturteetarako. Ikerbasque, Zientziarako Euskal Fundazioko ikerketa-irakaslea (Ikerbasque research professor) eta Euskal Herriko Unibertsitateari atxikitako irakasle gorena. Eszedentzian dago Vienako (Austria) Ekonomia eta Negozio Unibertsitatean, eta katedraduna da bertan Soziologia Ekonomikoan. Soziologia eta Gizarte Ikerketa Institutuko zuzendaria izan da.



04

06

10

16

18

22

24

26

27

28

Aurkibidea

Oñatiko Lege Soziologiako
Nazioarteko Erakundea

Lege Soziologiako
Nazioarteko Masterra

Mintegiak

Oñatiko 2019ko Adierazpena
bultzatzeko III. Jardunaldiak

Bisitak

Liburutegia

Argitalpenak

Oñati Community

Erakunde-harremanak

Inpaktu-mapa

Nor gara

Oñatiko Lege Soziologiako Nazioarteko Erakundea (LSNE) orientazio akademikoko irabazi-asmorik gabeko erakundea da, erregimen publikoko fundazio pribatu gisa eratua. Estatutuen arabera, LSNE zuzenbidearen soziologiako nazioarteko ikerketa zientifiko eta teknikoan aritzen da, eta nagusiki Euskadin garatzen ditu bere eginkizunak.

LSNE 1988an sortu zuten Eusko Jaurlaritzako eta Lege Soziologiako Ikerketa Batzordeko (RCSL) ordezkariak, Soziologiako Nazioarteko Elkartearen barruan. Bere egoitza, zerbitzu nagusiak eta lege-soziologian espezializatutako liburutegia Oñatiko Unibertsitate Zaharrea daude. Gune horiek Gipuzkoako Foru Aldundiak lagatakoak dira. Gainera, LSNEk Antia egoitzan ostatu hartzeko aukera ematen die erabiltzaileei, Santa Marina plazako 5. zenbakian, Oñatiko erdigunean. XVIII. mendeko eraikin historikoa da, Oñatiko Udalarena.

LSNE estu lotuta dago Euskal Herriko beste erakunde publiko batzuekin, tartean Euskal Herriko Unibertsitatearekin (UPV/EHU) eta Ikerbasque Zientziarako Euskal Fundazioarekin. LSNEko zientzia-zuzendaria bi erakundeetako kidea da. Hala, LSNEk Lege Soziologiako Nazioarteko Master Programa bat antolatzen du UPV/EHUrentzat.

Xedea

Bere Estatutuen arabera, LSNEren helburu nagusia zuzenbidearen soziologiako ikerketan aurrera egitea da, eztabaida akademikoaren, analisiaren eta alderaketaren bidez eremu guztietan izandako garapenei aktiboki jarraituz. Horretarako, LSNEk harremanak ditu Euskal Herriko Unibertsitatearekin eta beste euskal erakunde batzuekin, tokiko testuinguruan integratzen laguntzeko eta euskal herriarekin, bertako gizartearekin eta kulturarekin harremana izateko.

Ikuspegia

LSNEk eredu izan nahi du nazioarteko lege-soziologian. Estatutuen arabera, horrek, batez ere, ikerketa zientifikorako benetako espirtua sortzea ekarriko luke, gaitasun akademikoaren ezein helburuk oztopatuko ez lukeena. Aitzitik, motibazio nagusia izango litzateke elkarrengandik ikastea, kritika konstruktiboak egitea eta esperientziak, pertzepzioak eta ezagutzak partekatzea.

Balioak

IKERKETA BERRIKUNTZA LANKIDETZA ZERBITZUA GARDENTASUNA KALITATEA

Patronatua

Eusko Jaurilaritzaren ordezkartzako kideak:

Ana Agirre Zurutuza (*Presidentea*)

Eugenio Artetxe Palomar
(*Presidenteordea*)

Itziar Alkorta Idiakez

Noé Cornago Prieto

Dolores Morondo Taramundi

Edmundo Rodríguez Achutegui

Benjamín Tejerina Montaña

RCSLren ordezkartzako kideak:

Ulrike Schultz (*Presidentea*)

Joxerramon Bengoetxea Caballero

Luigi Cominelli

Rosemary Hunter

Susanne Karstedt

Marta Soler Gallart

Martin Ramstedt

Taldea

Sabine Frerichs

Zientzia Zuzendaria (Ira. 2022-2024)

Maite Elorza Plazaola

*Administrazio Zuzendaria /
Patronatuko Idazkaria*

Manttoni Kortabarría Madina

Administrazioa, RCSL

Leire Kortabarría

Argitalpen Programa

Ainhoa Markuleta Letamendi

Visiting Scholars Programa

Susana Arrese Murguzur

Master Programa, Oñati Community

Rakel Lizarralde Maiztegi

Liburutegia

María Jesús Mesonero Encinar

Kontabilitatea eta Kalitatea

Malen Gordo Mendizabal

*Mintegiak, Kongresuak, Bilerak, Uda
Ikastaroak, Egonaldi Bekak*

+ info: master@iisj.es

Lege Soziologiako Nazioarteko Masterra

UPV/EHUko Master ofiziala

Ikerketara bideratutako programa, ikerketa sozio-juridikoko proiektuei ekiteko oinarri kontzeptualak eta trebetasun metodologikoak ematen dituena.

Gainera, LSNEk, UPV/EHUrekin eta Milango Unibertsitatearekin batera, gradu bikoitza egiteko aukera eskaintzen die ikasleei: Lege Soziologiako Nazioarteko Unibertsitate Masterra/LLM in Law and Sustainable Development.

18 IRAKASLE

8 HERRIALDETAOKAK

24 IKASLE

7 HERRIALDETAOKAK

8 IKASLE KURTZO SOLTEETAN

5 HERRIALDETAOKAK



UNIVERSITÀ
DEGLI STUDI
DI MILANO

oman ta zaab zazu



Universidad
del País Vasco

Euskal Herriko
Unibertsitatea



IISL
LSNE
IISJ

Tesi-ikerketa Solasaldia eta tutoretzak

IKERKETA SOZIO-JURIDIKOAREN
ETA TESIAREN III. MINTEGIA
2023



Sabine Frerichs
LSNEko zientzia-zuzendaria
Ikerbasque research professor;
Irakasle gorena – Zuzenbide
Fakultatea UPV/EHU

Programa 2022/2023

Justice and Public Safety beyond the Police

KRIMENAREN ETA DESBIDERAPENAREN SOZIOLOGIA
Urt. 09 - 20 2023



Ida Nafstad
Amin Parsa
Lundeko Unibertsitatea

International Law & Collective Memory

ZUZENBIDE PUBLIKOAREN ETA ZUZENBIDE
PRIBATUAREN SOZIOLOGIA
Urt. 23 - Ots. 03 2023




Moshe Hirsch
Jerusalemgo Unibertsitate
Hebrearra

Programa 2023/2024

Comparative Legal Culture

KULTURA JURIDIKOAK ETA MENDEBALDEKOA EZ
DEN ZUZENBIDEA KONPARAZIOZKO ESPARRU
BATEAN
Ira. 25 - Urr. 06 2023



Joxerramon Bengoetxea
Iker Nabaskues
Euskal Herriko
Unibertsitatea UPV/EHU

International Criminal Justice: Prosecution, Trials, and Knowledge

KRIMENAREN ETA DESBIDERAPENAREN SOZIOLOGIA
Urr. 09 - 20 2023



Joachim Savelsberg
Minnesotako Unibertsitatea

Socio-Legal Approaches to Human Rights


GAI NAGUSIAK ZUZENBIDEAREN SOZIOLOGIA
GARAIKIDEAN
Ots. 06 - 17 2023



Dolores Morondo
Giza Eskubideen
Institutua, Deustuko
Unibertsitatea, Bilbo
Gorka Urrutia
Deustuko Unibertsitatea

Understanding Safety, Risk and Norms in the Global Economy through the lens of Sociology of Law: The Case of Aviation

GLOBALIZAZIOA, ZUZENBIDEAREN EKONOMIA ETA
SOZIOLOGIA
Mar. 06 - 17 2023



John Woodlock
Lundeko Unibertsitatea
Sabine Frerichs
Oñati LSNE zientzia-
zuzendaria

Human Dignity in Legal Procedures

AUZIAREN SOZIOLOGIA ETA GATAZKEN EBAZPENA
Ots. 20 - Mar. 03 2023



Eugenia Relaño Pastor
Antropologia Sozialeko MPI;
Zuzenbide Fakultatea,
Complutense Unibertsitatea,
Madril

Sociology of the Rule of Law: Politics, Economics and Social Transitions

GLOBALIZAZIOA, ZUZENBIDEAREN EKONOMIA ETA
SOZIOLOGIA
Mar. 20 - 31 2023



Jiří Přibán
Cardiffeko Unibertsitatea

Legal Anthropology: An Introductory Guide to Legal Pluralism

ZUZENBIDEAREN ANTROPOLOGIA
Urr. 23 - Aza. 03 2023



Katrin Seidel
Max Planck Institutua Antropologia
Soziala

Original Nation Approaches to Inter-National Law

GAI NAGUSIAK ZUZENBIDEAREN SOZIOLOGIA
GARAIKIDEAN
Aza. 06 - 17 2023



Hiroshi Fukurai
Kaliforniako Unibertsitatea,
Santa Cruz

Qualitative Approaches to Research

IKERKETA SOZIO-JURIDIKOA ETA TESIA I. MINTEGIA
Aza. 20 - 24 2023



Santiago Amietta
Keeleko Unibertsitatea

Behaviour of Legal Professionals and Institutional Context

LEGE-ARLOKO LANBIDEAK, TEORIA ETA PRAKTIKA
Aza. 27 - Abe.08 2023




Karina Ansolabehere
Mexikoko Unibertsitate
Nazional Autonomoa

Social Theory of Law

ZUZENBIDEA ETA TEORIA SOZIALA
Abe. 11 - 22 2023



Ralf Rogowski
Warwickeko Unibertsitatea





Mintegiak

Oñatiko Lege Soziologiako Nazioarteko Erakundeak Lege Soziologiari lotutako gaien buruzko eztabaidak eta ideiak trukatzeko leku aproposa eskaintzen du.

Mintegiak Oñatiko Unibertsitate Zaharraren eraikinean egiten dira (1540an sortutako eraikin errenazentista). Parte-hartzaileek herriko erdigunean dagoen Antia egoitzan (XVIII. mendeko eraikina) hartu ahal izango dute ostatu.

153 PARTE-HARTZAILE

26 KOORDINATZAILE

9 UNIBERTSITATEKOAK

Socio-Legal Trajectories in Europe: Comparative Perspectives of the UK, Germany and beyond

Api. 20 - 21 2023

KOORDINAZIOA

Jen Hendry - Leedseko Unibertsitatea Zuzenbide Eskola
Naomi Creutzfeldt - Westminsterreko Unibertsitatea
Christian Boulanger - Ikerketa-kidea Max Planck Institutua Zuzenbidearen Historia eta Zuzenbidearen Teoria

The Influence of Media and New Technologies on Law: Socio-Legal Approach

Mai. 04 - 05 2023

KOORDINAZIOA

Iker Nabaskues Martínez de Eulate
Francisco Javier Fernández Galarreta
Euskal Herriko Unibertsitatea UPV/EHU

Law and culture in the juridical field of the prison: theoretical and empirical perspectives on the social uses of law in prison

Mai. 18 - 19 2023

KOORDINAZIOA

André Giamberardino - Università Federal do Paraná
Iñaki Rivera Beiras - Universitat de Barcelona
Richard Sparks - Edinburgoko Unibertsitatea
Luca Sterchele - Università di Milano Bicocca
Francesca Vianello - Università di Padova

Feminist Engagements with the Law in Contemporary Europe: Perspectives from Activism, Legal Professions and Academia

Mai. 25 - 26 2023

KOORDINAZIOA

Elena Caruso - Kenteko Unibertsitatea
Elena Ghidoni - Deustuko Unibertsitatea
Stefanie Pletz - Sheffieldeko Unibertsitatea

The Future of Parole: Ideas, Institutions and Practices

Eka. 01 - 02 2023

KOORDINAZIOA

Harry Annison - Southamptoneko Unibertsitatea
Thomas Guiney - Nottinghameko Unibertsitatea
Nicola Carr - Nottinghameko Unibertsitatea

The Future of Housing: Resilient Property Perspectives and Sustainable Solutions

Eka. 08 - 09 2023

KOORDINAZIOA

Lorna Fox O'Mahony - Essexeko Unibertsitatea
Marc L. Roark - Tulsako Unibertsitatea

Legal Epistemic Authority in a Sociological and Comparative Perspective

Eka. 15 - 16 2023

KOORDINAZIOA

Michał Paździora
Piotr Eckhardt
Wroclawko Unibertsitatea

Constitutionalism and Political Economy. New Trajectories and Opportunities for Socio-Legal Scholarship

Eka. 22 - 23 2023

KOORDINAZIOA

Ioannis Kampourakis
Michał Stambulski
Erasmus Unibertsitatea Rotterdam

Family Justice and Mental Incapacity

Eka. 06 - 07 2023

KOORDINAZIOA

Mavis Maclean - Oxfordeko Unibertsitatea

El derecho a la vida familiar y el impacto de la autonomía y el afecto en la adopción. Un estudio sociojurídico crítico desde el derecho comparado

Uzt. 20 - 21 2023

KOORDINAZIOA

Natalia de la Torre
Federico Notrica
Marisa Herrera
Buenos Airesko Unibertsitatea

Socio-Legal Trajectories in Europe: Comparative Perspectives of the UK, Germany and beyond

Api. 20 - 21 2023



KOORDINAZIOA

Jen Hendry - Leedseko Unibertsitatea Zuzenbide Eskola
Naomi Creutzfeldt - Westminsterreko Unibertsitatea
Christian Boulanger - Ikerketa-kidea Max Planck Institutua Zuzenbidearen Historia eta Zuzenbidearen Teoria

MINTEGIAREN HIZKUNTZA: INGELESA

LABURPENA

Tailerrak azterketa soziojuridikoek teoriaren, kultura juridikoaren eta metodoaren elkargunean planteatzen dituzten gaiak aztertuko ditu. Adibidez, ikerketa soziojuridikoaren dimentsioak testuingurukoa, kritikoa edo enpirikoa izan behar du? Non dute lekua kriminologia, geografia edo antropologia bezalako diziplina arteko ahaleginek? Zer rol betetzen ditu teoriak edo konparazioak?

Tailerra proiektu batean oinarritzen da. Bertan, Alemaniako eta Erresuma Batuko eremu soziojuridikoko inguruneak eta kulturak ari gara aztertzen. (<https://www.lhlt.mpg.de/2512903/socio-legal-trajectories>). Tailer honetan ikuspegi hori garatu eta zabaldu genuen, herrialde gehiago eta haien ibilbide soziojuridikoak sartzeko.

GAIAREN GARRANTZIA EUSKADIRENTZAT

Aurreratu nahi dugu tailerrak ekarpen garrantzitsua egingo diela azterlan soziojuridikoari, batez ere kultura juridiko askotako akademiko soziojuridiko senior eta juniorren arteko elkarrizketa ahalbidetuko dugulako. Jakina, Euskadi eta azterlan soziojuridikoaren historiari, Oñatiren bitartez, egin dion ekarpen garrantzitsua hartuko dira barnean. Espero dugu azterlan soziojuridikoaren jatorrien eta garapenen esplorazioari buruzko gure tailerra akademikoaren arteko etengabeko elkarrizketaren hasiera izatea eta arlo horren garapenean etengabeko interesa bultzatzea.

The Influence of Media and New Technologies on Law: Socio-Legal Approach

Mai. 04 - 05 2023



KOORDINAZIOA

Iker Nabaskues Martínez de Eulate
Francisco Javier Fernández Galarreta
Euskal Herriko Unibertsitatea UPV/EHU

MINTEGIAREN HIZKUNTZA: INGELESA

LABURPENA

Tailerra Hedabideek eta Teknologia Berriek Zuzenbidean duten eragina aztertzen saiatuko da. Eragin horren alderdi soziojuridikoak eta egungo joerak zehaztea da xedea.

GAIAREN GARRANTZIA EUSKADIRENTZAT

Tailerrak ez du euskal arazorik garatuko. Hau da, arazoak ez dira, nolabait esateko, "euskal arazoak" izango, unibertsalak baizik, bertan parte hartuko duten irakasle askok EHUren ikuspegia eskainiko duten arren.

Law and culture in the juridical field of the prison: theoretical and empirical perspectives on the social uses of law in prison

Mai. 18 - 19 2023



KOORDINAZIOA

André Giamberardino - Università Federal do Paraná

Iñaki Rivera Beiras - Universitat de Barcelona

Richard Sparks - Edinburgoko Unibertsitatea

Luca Sterchele - Università di Milano Bicocca

Francesca Vianello - Università di Padova

MINTEGIAREN HIZKUNTZA: INGELESA / GAZTELANIA

LABURPENA


Espetxearen eremu juridikoan zuzenbidearen erabilera sozialak aztertzea da xedea. Espetxe ingurune sinbolikoaren eta arau juridikoen arteko harremana zalantzakoa da. Funtzionamendu instituzionala erregulatzen duten arauen konfigurazioak espetxe eragile sozialen arteko harreman informaleen sistema lokalistarekin talka egiten du. Espetxeetako praktiken “azpi-zuzenbide” horri begiratu nahi diogu, ulertzeko zer aldaketa eragin dezakeen zuzenbideak espetxeen eremuan.

GAIAREN GARRANTZIA EUSKADIRENTZAT

Gure ustez, proposatutako gaiak oso interesgarriak izan daitezke Euskadirentzat. Eskualde honek, historikoki, espetxearen nolabaiteko zentraltasuna ikusi du hura zeharkatu duten gertakari politikoetan. Ildo horretan, iraganeko esperientziak berrinterpretatzeko eta gaur egungoak modu sendoagoan eta sakonagoan lantzeko oinarriak finkatzea ahalbidetuko duten gaiak jorratuko ditu tailerrak. Disidentzia politikoaren espetxe-kontrolerako moduak, espetxeratze bereziko erregimenak, espetxe-erregimen “gogorragoak” merezi dituztela uste den presoen eskubideen bermea dira tailerrean landuko diren gaiak. Ekarpentzat, zehazkiago, askatasun pertsonalaz gabetutako pertsonen eskubideen errespetua bermatzeko aukerari buruzko hausnarketa egingo dute, “zuzenbide penal etsaiaren” moduak aztergai hartuta (Jakobs, 2010). Atxiloketaren alternatibei buruz eta justizia leheneratzailearen moduei buruz hausnartuko dugu, nolabait antzeko esperientziak izan dituzten beste herrialde batzuetan ere (besteak beste Italian, adibidez, terrorismo politikoaren kasuan, “anni di piombo” deiturikoetan) emaitza oso esanguratsuak izan baitituzte (ikus Regalia et al., 2015).

Feminist Engagements with the Law in Contemporary Europe: Perspectives from Activism, Legal Professions and Academia

Mai. 25 - 26 2023



KOORDINAZIOA

Elena Caruso - Kenteko Unibertsitatea

Elena Ghidoni - Deustuko Unibertsitatea

Stefanie Pletz - Sheffieldeko Unibertsitatea

MINTEGIAREN HIZKUNTZA: INGELESA / GAZTELANIA

LABURPENA

Nola erlazionatzen dira feminismoa eta zuzenbidea Europa garaikidearen testuinguru soziojuridikoan? Nola eragiten du haien elkarguneak aktibismoan, lanbide juridikoetan eta akademian? Zer eragin du civil law-ren tradizio juridikoak topaketa hauetan, common law-rekin alderatuta? Galdera horiei erantzuten saiatuz, tailer honek aktibista feministak, zuzenbideko profesionalak eta legelariak biltzen ditu, civil law tradizio juridikoko herrialdeetan feminismoa eta zuzenbidea elkartzeko erronkei eta aukerei buruz hausnartzeko.

GAIAREN GARRANTZIA EUSKADIRENTZAT

Gure tailerrak arreta berezia jartzen du genero-indarkerian. Oñatiko tailerretan iradokitako gaietako bat da, baita gai adierazgarrietako bat ere aktibista feministek eta oinarritzko erakundeek emakumeen eskubideen alde egiten duten defentsan. Gainera, tailer honek berebiziko garrantzia du genero-berdintasunerako politikak ezartzeko eta Euskadin zuzenbideari buruzko hausnarketa feministak sustatzeko. Ikuspegi horretatik, bi ekarpen nagusi eskainiko ditu. Lehenik eta behin, gure tailerrak mesede eta indar egingo die Euskal Autonomia Erkidegoan genero-gaiekin konprometituta dauden gizarte-mugimenduei eta eragile instituzionalari. Izan ere, Euskal Autonomia Erkidegoan eta, oro har, Espainian, mugimendu feminista oso aktiboa da, eta mobilizazio garrantzitsua izan da azken urteotan, bereziki emakumeen aurkako indarkeriarekin lotutako epaiketa estereotipatu eta patriarkalei dagokienez. Mobilizazio horrek gero eta irmoago eskatzen die euskal akademikoei hausnarketarako gune bat irekitzeko, zuzenbideko profesionalak, bereziki erabaki judicialak hartzen dituztenek, justizia patriarkala deiturikoari dagokienez betetzen duten zereginari buruz. Bigarrenik, gure tailerraren helburuak Emakunde Emakumearen Euskal Erakundearen xedearekin lerrotatzen dira bereziki. Izan ere, Emakunde feminismo instituzionalaren adibide aitzindaria da, eta oinarritzko erakundeekin eta emakumeen mugimenduekin sinergiak ezartzeko konpromisoa hartu du. Hori dela eta, gure eskaera onartuz gero, Emakunderekin lankidetzaz ezartzeko aukera aztertuko dugu, tailerra elkarrekin babesteko. Laburbilduz, tailerrean jasotako ikuspegi konparatuek eta zeharkakoek ere eragin positiboa izango dute EAEko genero-berdintasunaren arloko politika publikoen diseinuan eta ezarpenean.

The Future of Parole: Ideas, Institutions and Practices

Eka. 01 - 02 2023



KOORDINAZIOA

Harry Annison - Southamptoneko Unibertsitatea
Thomas Guiney - Nottinghameko Unibertsitatea
Nicola Carr - Nottinghameko Unibertsitatea

MINTEGIAREN HIZKUNTZA: INGELESA

LABURPENA

Baldintzapeko askatasunaren sistema modernoaren ezarpena XX. mendeko aurrerapen penal erabakigarrietako bat izan zen. Hala ere, presoak modu zuzen, irmo eta eraginkor batean askatzeko ditugun erakundeak gero eta presio handiagoaren pean daude orain. Hainbat urte iraundako eztabaidaren ondoren, adostasun gutxi dago baldintzapeko askatasunari buruz eta kudeatu behar den moduari buruz. Tailer honek ideia berriak lantzeko foro bat eskainiko du. Erudizio soziojuridikoaren indarguneak adieraziko ditu adibideen bidez, eta egungo espetze-askapenaren ideien, erakundeen eta praktiken gaineko ikuspegi berriei egingo die harrera.

GAIAREN GARRANTZIA EUSKADIRENTZAT

Baldintzapeko askatasuna (eta espetzealdi irekia) dira espetze-betearazpenaren "euskal eredu" berriari buruzko eztabaiden muina, eta dagozkion eskumen garrantzitsuak Euskadiri transferitu zaizkio berriki. Eusko Jaurlaritzako Justizia Saila espetxeen administrazioa bere gain hartzen hasi da, haien funtzionamendua errotik eraldatzeko helburuarekin. Kanpoan den mundura ahalik eta gehien bideratutako espetxerazte-moduak lehenetsi nahi ditu, erregimen irekietara igaro gabe presoak zentro itxietan atxikitzeko joera tradizionala saihestuz. Beraz, baldintzapeko askatasunaren filosofiari eta ezartzeko bete beharreko baldintzei buruzko eztabaida inoiz baino beharrezkoagoa da, eta preso-mota desberdinen ikuspegitik ere gauzatu behar da (lehenik eta behin, baina ez bakarrik, arrazoi politikoengatik preso daudenak eta abar). Gainera, Espainiako Auzitegi Konstituzionalak (STC 169/2021) epai historiko bat eman du Espainiako baldintzapeko askatasuna erregulatzeari dagokionez. Litekeena da horrek epe luzeko ondorioak izatea baldintzapeko askatasunean Espainian, baina bereziki Euskadin eta arrazoi politikoengatik presoan eta haien atxilotketen azterketa zorrotzari dagokionez. Tailer honek Euskadin izan berri diren gertaeretatik ikasiko du eta, aldi berean, baldintzapeko askatasunari dagokionez espetze-betearazpenaren "euskal ereduaren" izaera egokiari buruzko eztabaida garaikideen berri emango du. Tailer honetan gaiak, praktikak eta ideiak aztertzerakoan, politikei eta praktikei ekarpen zuzena eta esanguratsua egitea espero dugu, ez bakarrik Euskadin, baita nazioartean ere, mundu osoan baldintzapeko askatasunaren sistemak presio handiaren pean dauden une honetan.

The Future of Housing: Resilient Property Perspectives and Sustainable Solutions

Eka. 08 - 09 2023



KOORDINAZIOA

Lorna Fox O'Mahony - Essexeko Unibertsitatea
Marc L. Roark - Tulsako Unibertsitatea

MINTEGIAREN HIZKUNTZA: INGELESA

LABURPENA

Tailerak kontuan hartzen du etxebizitzaren etorkizuna, estatuek eta merkatuek aurre egin beharreko erronka politiko, ekonomiko, sozial eta ingurumenekoak testuinguruan, baita horrek pertsonengan, komunitateetan eta hirietan duen eragina ere. Sistema erresilienteetan ainguratuta eta estatuen, merkatuen, gizabanakoaren eta komunitateen beharrak aseta, dokumentuek gainditu egiten dituzte jabetza- eta etxebizitza-eskubidearen alderdi doktrinal, metodologiko eta teorikoak, etxebizitza-arazoei irtenbide jasangarriak emateko ikuspegi berriak hartuz.

GAIAREN GARRANTZIA EUSKADIRENTZAT

Espainian, etxebizitza-politikak autonomia-erkidegoen eskumenekoak dira, eta horrek aukerak zabaldu ditu etxebizitza eskuragarriko hurbilketa jasangarriak aztertzeko. Euskal Autonomia Erkidegoak etxebizitzaren arloko erreformarako hurbilketa berritzaile eta handinahiak garatu ditu, etxebizitzarako eskubide irmoa barne, Espainiako Konstituzioak babestutako jabetza pribatuko eskubideak konpentsatzeko. Hala ere, Euskal Autonomia Erkidegoak etxebizitzaren krisiaren "makurkeria" ere erakusten du, baita ondo garatutako lege-esparruetatik edo etxebizitza-eskubideen artikulazioetatik harago begiratzeko beharra ere, tokian bertan etxebizitza eskuragarriak eskaintzeko oztopo praktikoak, politikoak eta ekonomikoak ulertze aldera. 2018an, EAEko etxegabeentzako zentroetan hartutako pertsonen batez besteko kopurua % 25,6 igo zen, aurreko bi urteekin alderatuta. Espainiako beste eskualde batzuetan bezala, Euskal Autonomia Erkidegoko bizitegi-prekarietate gero eta handiagoa hutsik dauden etxebizitzaren kopuru handiari lotuta dago (53.000 2019an), bankuek gordailatuak merkatubalio handiagoaren zain. Aldi berean, estatuak presiopean daude etxebizitza sozialen kopurua handitzera bideratutako baliabideak esleitzeko eta hutsik dauden jabetza horiek bizitoki gisa erabil daitezen itzultzeko. Erronka horiek izango dira tailerreko panelaren fokua, etxebizitzaren arloko ekonomia jasangarriei buruzkoa. Euskadik ere immigrazioarekin lotutako erronkei egin behar die aurre, eremu urbanizatueta arreta handiagoa jarrita. Geografia jasangarriak aztergai dituen tailerreko eztabaida-panelen helburua da etxebizitza-irtenbideak identifikatzea, lurraren erabilera jasangarria kontuan hartzen dutenak landa-eremuan, hiri-eremuan eta hiri-inguruetan. Krisiak, interbentzioak eta susperraldia jorratzen dituzten panelek kontuan hartzen dituzte nola erantzuten dieten hondamendiei eta krisiei (krisi ekonomikoak/finantzariorak, krisi politikoak, osasun publikoko krisiak/pandemikoak) estatuek eta hiriek eskala eta maila desberdinetan. Jurisdikzio ugariatik informazioa bildu duten artikuluek agintaritzak, jurisdikzio eta presio nazional, erregional eta lokalak arteko elkarreaginak aztertuko dituzte.

Legal Epistemic Authority in a Sociological and Comparative Perspective

Eka. 15 – 16 2023



KOORDINAZIOA

Michał Paździora

Piotr Eckhardt

Wroclawko Unibertsitatea

MINTEGIAREN HIZKUNTZA: INGELESA

LABURPENA

Tailerraren helburua da zuzenbideko profesionalen agintaritza epistemikoan oinarritzea, gatazkak konpontzeko duten eginkizunarekin batera. Azken horrek funtzio aktiboa betetzen du demokraziaren ideia gauzatzeko eta mantentzeko, eta zuzenbideko profesionalak demokrazian duten eginkizuna ulertzen. Agintaritza epistemiko juridikoak erantzun behar dien erronka garaikideek aldaketak dakartzate bere legitimitatearen egiturari, ezagutzaren eta arrazoibide juridikoaren eraldaketari eta zuzenbidearen eta politikaren arteko harremanari.

GAIAREN GARRANTZIA EUSKADIRENTZAT

Gaur egun, gatazka gehienak eremu juridikoan ebazten dira. Zuzenbidearen autoritateak garrantzia hartzen jarraitzen du, batez ere adostasun politikorik ez dagoenean. Beraz, lanbide juridikoak bere trebetasun profesionaletatik haratago doazen kompetentzien jabe izatea espero da. Euskal Herriaren historia aparteko adibide bat da erakusteko zuzenbidearen autoritateak nola konfiguratu dezakeen ordena politiko eta sozial berrien eraketa; irtenbide baketsu eta diplomatiko baten alde irrimo lan egin zuen, eta estatutuetan ezarritako eskubideak eman zizkion eskualdeari. Zuzenbidearen autoritate epistemikoaren egungo zereginari buruzko tailerrari esker, parte-hartzaileek sakonagotik ezagutu ahal izango dute herrialdearen historia, eta esperientzia hori beren ikerketetara eraman ahal izango dute.

Constitutionalism and Political Economy. New Trajectories and Opportunities for Socio-Legal Scholarship

Eka. 22 - 23 2023



KOORDINAZIOA

Ioannis Kampourakis

Michał Stambulski

Erasmus Unibertsitatea Rotterdam

MINTEGIAREN HIZKUNTZA: INGELESA

LABURPENA

Proposatutako tailerraren helburua konstituzionalismoan eta ekonomia politikoan oraintsuko ikuspegiak eta ikerketak elkarren ondoan jartzea da. Azken hamarkadak ondo ulertutako ekonomiarik buruzko erregulazioak –besteak beste merkatu askearen printzipioak eta finantzen merkatuko eragiketak– konstituzionalizatzeko eta despolitizatzeko aldia izan dira. Aldi berean, beste ondasun sozial batzuk ere merkantilizatu egin dira, tartean osasun publikoa eta klima. 2008ko krisi ekonomikoak interes berritua piztu zuen desberdintasunaren gaian eta ekonomia politikoaren paradigmen barruko erregulazio ekonomikoaren oinarri sozialetan. Gainera, paradigma horretan egindako ikerketek gero eta gehiago azpimarratzen dute zuzenbideak esparru ekonomikoan betetzen duen eginkizuna. Era berean, herritarren aktibismo sozialaren aldia izan zen, eta konstituzionalismoa legearen esparrutik arlo politiko eta sozialera birmoldatzeko oinarriak ezarri zituen. Tailer honetan ekonomia politikoak konstituzionalismoari eta alderantziz eskain diezaiokeena aztertu nahi dugu. Zuzenbidearen eta ekonomia politikoaren ikuspegiak konstituzionalismo liberal nagusiaren eta konstituzio ekonomiko global zein europarraren kritika sortzailea jasotzen duela dirudi. Eta konstituzionalismoak bide ematen digu galdetzeko agenda positiboari eta kritika horren testuinguru normatiboari buruz. Ikuspegi horien arteko talkak, beraz, bide berriak ireki ditzake erudizio soziojuridikoarentzat garrantzitsuak diren hainbat gai auzitan jartzeko, besteak beste desberdintasuna, merkatu askearen mugak, korporazioen boterea eta harreman ekonomikoen demokratizazioa. Tailerrean, bost herrialde eta bederatziko unibertsitateetako hamabost ikertzailek baino gehiagok parte hartuko dute ikerketa soziojuridikorako ibilbide eta aukera berri horiei buruzko funtsezko eztabaidetan.

GAIAREN GARRANTZIA EUSKADIRENTZAT

Tailerraren gaiak ez du zerikusi zuzenik Euskadirekin. Hala ere, kontuan hartu beharra dago ekonomiaren eta zuzenbidearen arteko loturaren garrantzi globala. Beraz, tailerraren emaitzak eskualdeko politika ekonomikoen diseinuan aplikatu daitezke.

Family Justice and Mental Incapacity

Eka. 06 - 07 2023



KOORDINAZIOA

Mavis Maclean - Oxfordeko Unibertsitatea

MINTEGIAREN HIZKUNTZA: INGELESA

LABURPENA

Familia Justiziak, tradizionalki, kalteberak babestu izan ditu eta, bereziki, abandonatuak izateko edo kalteak jasateko arriskuan dauden haurrak. Horri gehitu nahi diogu gure kezka kalteberatasun-egoeran dauden pertsonen familia-justiziarako duten sarbideaz, besteak beste adingabeek, zaharrek eta desgaituek.


Legeria berria aurreikusi da Espainiarako. Joera ikusten da pertsona kaltebera kontrolatzera mugatu ordez hura babesteko, baita profesionalak babesteko ere, haien interbentzioa ez baita ondo hartzen zenbaitetan. Familia-zuzenbidearen soziologiaren ikuspegia eztabaida honetara ekartzea espero dugu.

GAIAREN GARRANTZIA EUSKADIRENTZAT

Artikulu hau idazteko unean (2021eko uztaila), Espainiako Gobernuak desgaitasun mentalari eta justiziarako sarbideari buruzko legeria berri bat prestatzen ari da, eta espero dugu tailer honetako eztabaidak lege berriaren interesean eta ulermenean lagundu ahal izatea, FLEUR txostena baliatuko baitugu, baita Herbehereetako eta Erresuma Batuko audientzien dokumentuak ere, non ere aldatetak gertatzen ari diren. Encarna Roca Trias magistratuak, Madrilgo Auzitegi Konstituzionaleko presidenteordeak, bileran parte hartu nahi du, eta litekeena da proposatutako egunetan jardunaldian landutako gaien inguruko kasuak bere epaitegira iristea.

El derecho a la vida familiar y el impacto de la autonomía y el afecto en la adopción. Un estudio sociojurídico crítico desde el derecho comparado

Uzt. 20 - 21 2023



KOORDINAZIOA

Natalia de la Torre

Federico Notrica

Marisa Herrera

Buenos Airesko Unibertsitatea

MINTEGIAREN HIZKUNTZA: GAZTELANIA

LABURPENA

Adopzioa haur orok familia batean bizitzeko eta garatzeko duen eskubidea bermatzeko diseinatutako kontzeptu juridikoa da. Hala ere, estatuak beharrezko neurriak hartu behar dituzte jatorrizko familietatik bereiz ez ditzaten. Hori lortzen ez denean, adopzioa irtenbide posible gisa agertzen da, baina ez da bakarra. Horren aurrean, ikertu behar da zer eginkizun duten sozioafektibitateak eta borondatezotasunak, figuraren azterketan sakontzeko elementu kritiko gisa, nola eragiten duen haurtzaroren eta desgaitasunaren arteko elkarguneak, kulturantzatasunaren garrantzia baztertu gabe.

GAIAREN GARRANTZIA EUSKADIRENTZAT

Euskal Autonomia Erkidegorako interes nagusia duten ildo tematikoetako bat adingabeen epaitegiek hartutako neurriei eta izaera sozialeko beste neurri mota batzuen ezarpenari buruzko azterlanari buruzkoa da. Zentzu horretan, haurtzaroko gaietan irtenbide desberdinak planteatzen dituzten plataforma faktikoak aztertu ahal izateak aberastu egiten du zuzenbidearen arloan dihardutenen lan soziojuridikoa.

Ildo horretan, koronabirusaren pandemiaren ondorioz, pobrezia-egoerak, bereziki haurrek eta nerabeek osatutako biztanleen artean, izugarri areagotu dira eta estatuko neurriek ez dute erantzun irmo eta eraginkorrik eman egoera hori aldatzeko. Zalantzarik gabe, migratzaileen populazioa eta gurasoen zaintzarik gabeko haurrak eta nerabeak dira gehien sufritzen dutenak, eta, beraz, haien konplexutasuna zaindu behar da. Beraz, hainbat GKEk harrera-leku duinak eskatzen dituzte haienentzat.

Pobrezia areagotu ahala, biztanleria immigrantea kaltetuena dela antzematen da hainbat frontetan. CARITAS Espainiak eta FOESSAK (Gizarte Azterlanen eta Soziologia Aplikatuaren Sustapenak) egindako txosten batean adierazten denez, "2021ean, familia atzeritarren % 50,3 gizarte-bazterketako egoeran daude, hau da, familia horien gizarte-bazterketa ia hiru aldiz handiagoa da familia espainiarretan" baino. Eta argi dago haurrak eta nerabeak berez kalteberak izanik, egoera horrek are eta kalteberago bihurtzen dituela. Arazoari sakonki erantzuteko arrazoi nahikoa, giza eskubideen ikuspegitik.

Azaldutakoaren arabera, besteak beste afektibitatea, gizartea, ekonomia, kultura, ideologia eta erlijioa bezalako osagaiez blaitutako arazoak behatzeak aukera emango digu horiei buruz hausnarketa bat egiteko eta esperientziak trukatzeko. Izan ere, eremu soziojuridikorako berdinek gabeko ekarpena egitea berekin ekarriko du horrek.

Oñatiko 2019ko Adierazpena bultzatzeko III. Jardunaldiak: Elkarrizketa soziala eta lan-politikak adostea aldaketa-tresna gisa

162 BERTARATU

7 HERRIALDETAOKAK

Jardunaldi hau antolatzeko arrazoia hauxe izan da, lan-munduaren erronkei buruzko eztabaida informatuan eta pluralean laguntzea, zentzu hertsian negoziazio kolektiboan eta zentzu zabalean elkarrizketa sozialean.

KOORDINAZIOA

Elena Pérez Barredo

Lan eta Gizarte Segurantzako sailburuordea,
Eusko Jaurlaritza

Ángel Lapuente

Lan eta Gizarte Segurantzako zuzendaria,
Eusko Jaurlaritza

Mariola Serrano

Deustuko Unibertsitatea

Noé Cornago

Euskal Herriko Unibertsitatea UPV/EHU

Sabine Frerichs

Zientzia-zuzendaria IISJ/LSNE
Ikerbasque Research Professor
Irakasle gorenare UPV/EHU



Oñatiko Adierazpenaz geroztik, Eusko Jaurlaritzako Lan eta Enplegu Sailburuordetzak lege-ekimenak eta ekimen politikoak ezarri ditu bere eskumenen esparruan, Euskal Autonomia Erkidegoko lanaren kalitatea hobetzen laguntzeko.





+ info: visiting@iisj.es

Bisitak

Urtero 40 bisitari inguru etortzen zaizkigu mundu osotik, eta hori, berez, truke akademikorako aukera paregabea da.

Bisitariak gure liburutegia erabiltzen dute, lege-soziologiaren arloan erreferente dena munduan. Gainera, Antia egoitzan ostatu har dezakete, beren ikerlanekin jarraitzeko, elkartzeko eta atsedean hartzeko lekua.

57 IKERTZAILE

24 HERRIALDETAKOAK

Gómez, Liliana

Kasseleko Unibertsitatea, Alemania
Urt. 09 - 31 2023

Rodas, Augusto Jordan

San Carloseko Unibertsitatea, Guatemala
Urt. 15 - 28 2023

Toribio, Mireya

Birminghameko Unibertsitatea, Erresuma Batua
Urt. 21 - Mar. 23 2023

Bichet Nicoletti, Carlos Julio

Max Planck Institutua, Luxenburgoko
Urt. 23 - Mar. 27 2023

Tanqueray, Laetitita

Lundeko Unibertsitatea, Suedia
Urt. 23 - Ots. 23 2023

Zuluaga, Lady Nancy

Buenos Airesko Unibertsitatea, Argentina
Urt. 25 - 27 2023

Urtubey, Federico

Gizarte eta Historia arloko Ikerketa Zentroa (CISH, IdHICS-CONICET), Argentina
Ots. 02 - 16 2023

Mancini, Letizia

Università degli Studi di Milano, Italia
Ots. 04 - 10 2023

Brock, Deborah

Yorkeko Unibertsitatea, Kanada
Ots. 06 - 20 2023

Gatti, Carlo

Turkuko Unibertsitatea, Finlandia
Ots. 10 - Mar. 10 2023

Wassouf, Dennis

Masaryk Unibertsitatea, Txekiar Errepublika
Mar. 01 - Api. 01 2023

Terzidou, Kalliopi

Luxenburgoko Unibertsitatea, Luxenburgoko
Mar. 03 - Api. 02 2023

Crowhurst, Isabel

Essexeko Unibertsitatea, Erresuma Batua
Mar. 04 - 31 2023

Houghton, Bethany

Vrije Universiteit Amsterdam, Herbehereak
Mar. 08 - Api. 2 2023

Reynolds, Johanna

Yorkeko Unibertsitatea, Kanada
Mar. 09 - 17 2023

Mostrova, Mihaela

Zirilio eta Metodiod Santuak Unibertsitatea, Skopie,
Mazedonia

Mar. 09 – 17 2023

Hyndman, Jennifer

Yorkeko Unibertsitatea, Kanada

Mar. 10 - 17 2023

Burdziej, Stanislaw

Magistratura eta Fiskaltzako Eskola Nazionala,
Polonia

Api. 17 - Mai. 01 2023

Štajnpihler, Tilen

Liublianako Unibertsitatea, Eslovenia

Api. 17 - Uzt. 17 2023

Rodríguez, Raquel

Granadako Unibertsitatea, Espainia

Api. 24 - 28 2023

Sterchele, Luca

Paduako Unibertsitatea, Italia

Api. 24 - Mai. 24 2023

Maculan, Alessandro

Paduako Unibertsitatea, Italia

Api. 24 - Mai. 24 2023

Tuzet, Giovanni

Bocconi Unibertsitatea, Italia

Mai. 08 – 12 2023

Díaz, Daniel

Errepublikaren Unibertsitatea, Uruguai

Mai. 15 - 28 2023

Szilágyi, István

Pázmány Péter Unibertsitate Katolikoa, Hungaria

Mai. 15 - Eka. 05 2023

Caciro, Pedro

Coimbrako Unibertsitatea, Portugal

Mai. 31 - Eka. 16 2023

Wilper, Ronald

Idahoko Unibertsitate Estatala, AEB

Eka. 03 - 07 2023

Astone, Daniel

Stockholmeko Unibertsitatea, Suedia

Eka. 16 - Uzt. 25 2023

Manko, Rafal

Erdialdeko Europako Unibertsitatea, Hungaria

Eka. 17 - 21 2023

Vázquez, Valeria

Hong Kongeko Unibertsitatea, Hong Kong

Eka. 19 - 30 2023

Chalmers, Shane

Hong Kongeko Unibertsitatea, Hong Kong

Eka. 19 - 30 2023

Ezurmendia, Jesús

Txileko Unibertsitatea, Txile

Eka. 22 - Uzt. 22 2023

López, Jessica

Kaliforniako Unibertsitatea, Irvine, AEB

Uzt. 05 - 29 2023

Blázquez, Francisco Javier

Nafarroako Unibertsitate Publikoa, Espainia

Uzt. 06 - 21 2023

Rivera, Iñaki

Bartzelonako Unibertsitatea, Espainia

Uzt. 17 - 22 2023

Ramírez, Paulina

Carlos III Unibertsitatea, Espainia

Uzt. 17 - 28 2023

Trotter, Sarah

Ekonomia eta Zientzia Politikoko
Londresko Eskola, Erresuma Batua
Ira. 04 - 16 2023

Vidal, Sergi

Deustuko Unibertsitatea, Espainia
Ira. 13 - 16 2023

Ribas, Cassiano

Sao Pauloko Unibertsitatea, Brasil
Ira. 10 - Aza. 04 2023

Czarnecki, Lukasz

Krakowko Pedagogia Unibertsitatea, Polonia
Ira. 18 - Abe. 15 2023

Handayami, Ayu

Sebelas Maret Unibertsitatea, Indonesia
Ira. 22 - 30 2023

Mendes, Ana Gabriela

UNESP-Franca, Brasil
Urr. 02 - 09 2023

Fernández, Sheila

Txileko Unibertsitate Autonomoa, Txile
Urr. 03 - Aza. 05 2023

Azzarà, Antonino

Roma Tre Unibertsitatea, Italia
Urr. 04 - Aza. 30 2023

Katayoun, Alidadi

Bryant Unibertsitatea, AEB
Urr. 06 - 14 2023

Feldman-Savelsberg, Pamela

Carleton College, AEB
Urr. 07 - 21 2023

Leskinen, Minni Sofia

Turkuko Unibertsitatea, Finlandia
Urr. 12 - 22 2023

Lindroos-Hovinheimo, Sussanna Mercedes

Helsinki Unibertsitatea, Finlandia
Urr. 16 - 22 2023

Hurri, Samuli

Turkuko Unibertsitatea, Finlandia
Urr. 16 - Aza. 05 2023

Kotkas, Toomas

Helsinki Unibertsitatea, Finlandia
Urr. 16 - Aza. 05 2023

Ayre, Jessica

Euskal Herriko Unibertsitatea UPV/EHU, Espainia
Urr. 22, 2023 - Urt. 25, 2024

Raitasuo, Santtu

Tampereko Unibertsitatea, Finlandia
Urr. 24 - Abe. 18 2023

Cianchella, Maurizio

Università degli Studi di Perugia, Italia
Aza. 01 - Abe. 22 2023

Bregvadze, Lasha

Tbilisiko Javakhishvili Unibertsitate Estatala, Georgia
Aza. 06 - 15 2023

Malik, Hanna

Turkuko Unibertsitatea, Finlandia
Aza. 06 - Abe. 3 2023

Ternero, Juan Manuel

Bartzelonako Unibertsitatea, Espainia
Aza. 19 - Abe. 05 2023

Kothakota, Nikhil Reddy

Oxfordeko Unibertsitatea, Erresuma Batua
Abe. 01 - 22 2023



Antia egoitza

IKERTZAILEAK

Červinka, Lukáš Lev (PhD)
Charles Unibertsitatea, Italia
Mar. 17 - 31 2023

Azzara, Antonino (PhD)
Erromako Unibertsitatea, Italia
Urr. 04 - Aza. 30 2023

MASTERREKO IKASLEAK

Batur, Bilge
Turkia
Urt. 01 - Mar. 31 2023

Gálvez, Aníbal
Peru
Urt. 01 - Mar. 31 2023

Antia egoitza XVIII. mendeko eraikin historikoa da, eta Institututik minutu gutxira dago.

Oñatiko Lege Soziologiako Nazioarteko Erakundearen Patronatuak egonaldi-bekak eskaintzen ditu Institutuko Liburutegian egin beharreko lan-proiektu bat duten bisitariarentzat, dela doktoregoko ikasleentzat (gehienez 2 hilabeteko egonaldia), dela doktoretza ondoko ikertzaileentzat (gehienez 2 asteko egonaldia), irakasle bisitari gisa egonaldia luzatzeko aukerarekin. Gainera, egoitzan egoteko bekak eskaintzen zaizkie Masterreko ikasleei.

Liburutegia

Liburutegia, 1989an inauguratua eta lege-soziologian espezializatua, erabiltzaile guztientzat dago zabalik. Liburuen gaikako sailkapen-sistemak, berariaz diseinatuak, lege-soziologiako arloak eta azpiarloak garatzen ditu.


Bi irakurgetan 22.000 liburu baino gehiago kontsulta daitezke, Zuzenbidearen Soziologiari buruzko aldizkarien eta beste gai batzuetakoen bilduma osatu batekin batera.

Katalogoak 120.000 liburu-erregistro baino gehiago ditu, lan kolektiboetako kapituluak, aldizkarietako artikulua eta dokumentu elektronikoak, gako-hitzekin aztertuta. Gainera, erabiltzaileak LSNEren online katalogora eta Euskal Herriko Unibertsitateko katalogora sar daitezke.

Eskuraketak



Harpidetzak



Erabilera-estatistikak



+418 BISITA FISIKO

+2.135 BISITA BIRTUAL

+22.500 LIBURUKI

+120.000 ERREGISTRO LIBURUENAK ETA BESTE MATERIAL BATZUENAK

Argitalpenak

Lege-soziologiaren arloko ikerketa berritzaileak argitaratzeko gune paregabea da Institutua. LSNE en egiten diren mintegiak aparteko abiapuntua dira kalitate handiko liburu-sailen argitalpenak garatzeko, Euskadirekin lotutako gaiei arreta berezia eskainiz.

Gainera, artikulu zientifikoak argitaratzen ditugu gure OSLS eta SORTUZ aldizkarietan.

Zergatik argitaratu artikulu bat gurekin?

Honako hauek eskaintzen ditugu:

- Argitalpen-esperientzia erabat doakoa (artikuluak kudeatzeagatik kargurik gabe).
- Kalitate handiko itsu bikoitz bidezko berrikuspena, mundu osoko adituek egina eta artikulua hobetzeko iradokizunak emango dituztenak.
- Artikuluaren edizio pertsonalizatua eta profesionala, irakurgarritasuna eta erakargarritasuna maximizatzeko.
- Gure argitalpen aurreratuko First Online modalitatearen bidez onartutako eta editatutako artikulu baten berehalako erabilgarritasuna.
- Egileek erreserbatuta dituzte egile-eskubideak, berriro argitara dezakete bahitura-aldirik gabe.



Oñati Socio-Legal Series

ALDIZKARIA

Nazioarteko aldizkari honek lege-soziologiaren esparruan bildutako lanak argitaratzen ditu, zuzenbidea erakunde sozial, prozesu, praktika edo teknika multzo gisa ulertu eta aztertu nahi duten ikerlanak barne, gizarte-zientziei eta humanitateei dagozkien metodologia eta ikuspegia erabilita.



Sortuz: Oñati Journal of Emergent Socio-Legal Studies

ALDIZKARIA

Aldizkari honek toki birtuala baina errealia izan nahi du, zuzenbidearen eta gizartearen arloan sortzen ari den komunitatea indartzeko, kalitatezko ikerketa zabalduz. Sortuz aldizkariak topagunea ere izan nahi du Oñatiko komunitatearen irismena aurretik LSNErekin harremanik izan ez dutenengana zabaltzeko.



Oñati International Series in Law and Society

LIBURUA


Liburuki horiek eklektikoak dira diziplinari, metodologiari eta ikuspegi teorikoei dagokienez, baina guztiek dute izaera konparatiboa. Oñatiko Lege Soziologiako Nazioarteko Erakundeak antolatutako tailerretan du jatorria, eta arretaz berrikusten dira Hart-en eta kanpoko ikuskatzaileekin.



Oñati: Derecho y Sociedad

LIBURUA

Dykinson argitaletxeak argitaratu eta banatutako saila. Gaztelaniaz argitaratutako sail honek bai Espainian bai Latinoamerikan zuzenbidearen soziologian izandako azken aurrerapenak eta joerak eskaintzen ditu. LSNEren sailaren editoreen panelak berrikusi, komisariatatu eta editatzen ditu.



Oñati Community

Kongresu zientifikoetan etengabe konektatzen ditu sarean eta bilera presentzialetan LSNErekin harremana duten milaka pertsona, ikertzaile, akademiko eta profesionalak, eta ekimen eta proiektu soziojuridikoetan laguntzea ahalbidetzen du.

726 KIDE

66 HERRIALDETAOKAK



Oñati Community. LSNEko ikasle, irakasle, bisitari eta lagunak elkartzen ditugu honako hauetarako: mentoretza akademikoa, doktoretza-tesi baten defentsaren alde aurreko aurkezpena, Brownbag webinar serieak eta lege-soziologiako egungo gaiei buruzko hitzaldiak.

Friendship programa. Gure nazioarteko bisitariari (ikasleak, irakasleak eta ikertzaileak) eta bertako biztanleei elkarren arteko kultur trukea egiteko, esperientzia ahaztezinak bizitzeko eta hizkuntza-ezagutzak hobetzeko aukera eskaintzen die. Tokiko komunitateko "Oñatiko lagunek" euskal kultura eta eguneroko bizitza hobeto ezagutzeko aukera ematen dute.

Friendship Programako jarduera guztiak borondatezkoak dira, eta horrek esan nahi du nazioarteko bisitariak eta "Oñatiko lagunek" erabakitzen dutela zenbateraino eta nola eman nahi duten denbora elkarrekin. Nazioarteko bisitariak ere jarduerak iradoki ditzakete.

BROWNBAG WEBINAR SERIES

COMMITTEE
RTI: BARBARA GIOVANNIELLO,
CLAUDIA BLANDON, NICOLETTA PAGANELLI,
VICTORIA CAPRILES & TELMA MOURA

"DOING RESEARCH IN EUSKADI FROM A FEMINIST PERSPECTIVE: COLLECTIVE MEMORY AND BASQUE WOMEN"
SPEAKER: MALENA E. NACERA
DISCUSSANT: ITZIAR ALTUZARRA
CHAIR: CLAUDIA BLANDON

WEDNESDAY 8 NOVEMBER AT 17:00 CET
TO REGISTER CLICK [HERE](#)

Fundazio-erakundeak



Lotutako erakundeak



Erakunde- harremanak

LSNE hainbat erakunde eta unibertsitatekin lotuta dago, bai estatukoak bai nazioartekoak. Hona hemen horietako batzuk: Eusko Jaurlaritza, AIS/RCSL, Gipuzkoako Foru Aldundia, Oñatiko Udala, Euskal Herriko Unibertsitatea, Ikerbasque, UIK, Deustuko Unibertsitatea.




Inpaktu-mapa

LSNE Fundazioa, lege-soziologiaren eredu.

- BISITAK
- MINTEGIAK
- MASTERRA



- Erresuma Batua ● ● ●
- Luxemburgo ●
- Austria ●
- Espainia ● ● ●
- Portugal ●





OÑATI INTERNATIONAL INSTITUTE
FOR THE SOCIOLOGY OF LAW

—
OÑATIKO LEGE-SOZIOLOGIAKO
NAZIOARTEKO ERAKUNDEA

—
INSTITUTO INTERNACIONAL
DE SOCIOLOGÍA JURÍDICA DE OÑATI

Unibertsitate Zaharra – Unibertsitate etorbidea 8
20560 Oñati, Gipuzkoa
+34 943 78 30 64 • onati@iisj.es • iisj.net

